

**EUSKADIKO BABES ZIBILEKO PLANAREN (LABI) AHOLKU  
BATZORDEAREN BILERA / REUNIÓN DEL COMITÉ ASESOR DEL PLAN  
DE PROTECCIÓN CIVIL DE EUSKADI (LABI)**

2021-12-03 Vitoria-Gasteiz 03-12-2021

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Arratsalde on eta ongi etorriak Lehendakaritzara herri agintariok eta erakundeetako ordezkariok, jaun-andreok. Eskerrik asko LABI-ren Aholku Batzordearen bileran parte hartzeagatik.

Atzo, Osasun sailburuak eta Segurtasun sailburuak zegozkien aginduak sinatu zituzten eta, gaur, osasun-larrialdiaren Dekretua argitaratu da. Beraz, honen agindupean eratuta geratzen da Aholku Batzorde hau.

Hemendik aurrera indarrean sartuko da Legebiltzarrean ekainaren 24ean onartu genuen pandemia kudeatzeko neurrien Legea.

Bilera honetan, hasteko Auzitegi Gorenaren ebazpenari buruzko informazioa partekatuko dugu “Covid ziurtagiriaren” aplikazioari dagokionez. Gorenaren ebazpenak Covid ziurtagiria aplikatzea baimentzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiari planteatu zitzaion bezala. Ondorioz, bihartik aurrera jarriko da indarrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den unetik aurrera.

Honez gain, gaurko bilkuran egoera epidemiologikoaren bilakaera baloratuko dugu, eta beste neurri prebentibo osagarriak aztertuko ditugu hurrengo asteetarako.

La sentencia del Tribunal Supremo avala la Orden de la Consejera de Salud que fue presentada para su autorización ante el TSJPV. En consecuencia a partir de mañana, desde el momento de su publicación en el Boletín, entrará en vigor la obligatoriedad del uso del Certificado Covid en establecimientos de ocio nocturno y en restaurantes de más de 50 comensales.

En esta reunión del Consejo Asesor vamos a valorar la situación epidemiológica actual. Esta valoración, de acuerdo a lo que establece el artículo 7.4 de la Ley

de Medidas para la Gestión de la Pandemia Covid-19, debe realizarse mediante la ponderación y análisis combinado de diferentes indicadores.

Las claves principales son las siguientes:

1.- Entre el 12 y el 30 de octubre, en la Tasa de incidencia acumulada pasamos de 54 casos a 87 por 100.000 habitantes. Desde el 1 de noviembre, el incremento ha sido abrupto y exponencial.

2.- En 33 días, hemos pasado de 87 casos a los casi 625 actuales. Esta incidencia se produce en todos los grupos de edad, aunque de forma especialmente significativa entre menores de 12 años que todavía no han podido recibir la vacuna.

3.- Excepto en el tramo de 20 a 39 años, la vacunación ha alcanzado el 90% en la población mayor de 12 años. Esto está permitiendo que los fallecimientos y los ingresos en UCI sean significativamente menores que los padecidos en olas anteriores con Tasas de incidencia similares.

Este dato positivo es relevante para situar, en su justa medida, el análisis de la situación actual y su comparación con las olas anteriores.

Los datos de impacto asistencial y vacunación hacen que esta situación de emergencia sanitaria sea sustancialmente diferente a las dos anteriores. En consecuencia, las medidas a adoptar también son diferentes.

En este contexto, las principales herramientas son la vacunación y las medidas preventivas básicas: mascarilla, distancia, ventilación y evitar aglomeraciones.

El Consejo Científico-Técnico estudiará medidas preventivas adicionales a estas. En concreto, la aplicación del Certificado Covid a otros ámbitos, en línea con lo realizado por otros Países europeos y Comunidades Autónomas, así como el plazo temporal de su vigencia.

Se está valorando, en particular, su obligatoriedad en eventos en espacios cerrados, especialmente cuando se realicen con el público de pie. También en otros ámbitos de la hostelería y la restauración, así como en el caso de gimnasios y espacios interiores donde se practica actividad física y/o deportiva. De igual modo, está en estudio su aplicación en el caso de visitas a pacientes ingresados en centros hospitalarios y residentes en centros socio-sanitarios.

En todo caso, estas medidas adicionales serían sometidas a autorización del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco. Lo haremos a la mayor brevedad posible recibido el planteamiento de la Comisión Científico-Técnica.

La toma de decisiones que podamos adoptar está condicionada por, al menos, tres referencias a considerar: Internacional, Estatal-judicial, y nuestras propias competencias.

En el ámbito institucional europeo es necesaria una reflexión compartida y la adopción de pautas comunes que se proyecten con mensajes claros a la sociedad. Necesitamos una mayor agilidad en los análisis y decisiones de las instituciones multilaterales, por ejemplo, para garantizar la vacunación global, o establecer criterios comunes sobre el uso obligatorio de la mascarilla en exteriores.

En el ámbito Estatal-judicial, el marco jurídico para la toma de decisiones sigue siendo insuficiente para responder a la pandemia. Las leyes estatales se quedan cortas. Nuestro marco competencial no nos permite adoptar determinadas decisiones sin su cobertura. En este contexto, los Tribunales Autonómicos emiten resoluciones y autos dispares sobre una misma cuestión. Por el momento, no se han adoptado decisiones que resuelvan esta problemática.

Gure eskumenen esparruan, Eusko Jaurlaritzaren jarrera argia da funtsezko bost ardatzetan:

- Lehenengoa: txertaketa. Ahalik eta baliabide gehien jartzen jarraituko dugu, oraindik jaso ez duten pertsonak txertoa har dezaten. Beharrezkoa da hirugarren dosia areagotzea eta 12 urtetik beherakoentzako pediatriako txertoa ahalik eta azkarren banatzea. Arlo honetan itxaropenerako arrazoiak ditugu eta txertaketa aurreratu ahal izatea espero dugu.
- Bigarrena: Covid ziurtagiria. Gure proposamena da Covid ziurtagiria erabili ahal den esparru guztietan erabiltzea, bi helbururekin: txertaketaren eraginkortasuna indartzea eta gizartea txertatu gabe izatearen arriskuetatik babestea.
- Hirugarrena: prebentzioa. Erantzukizunerako deia berretsi behar dugu eta prebentzio neurri eraginkorrenak erabiltzen jarraitzeko eskatu: maskara erabiltzea, barrualdeak aireztatzea, pertsonen arteko distantzia, eskuen higiena, pilaketak saihestea eta mugikortasuna gutxitzea.
- Lau: osasun-erantzuna. Testak egiteko eta kasuak eta kontaktuak arakatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak izaten jarraituko dugu, birusaren transmisioak une bakoitzean duen bilakaeraren arabera.
- Bost: osasun-larrialdia. Bilakaera epidemiologiko negatibo baten aurrean neurriak ezartzea ahalbidetzen duen lege-esparrua dugu. Pandemiaren bilakaera egunez egun aztertzen eta ebaluatzen jarraitzea da gure konpromisoa.

Egungo egoeraren arriskuaz jabetu behar dugu, eta erantzukizunez eta zorroztasunez jokatu.

Aholku Batzorde honetan datozen egunetan aplikatu litezkeen prebentzio-neurri gehigarriak aztertuko dira behin Batzorde laguntzaileak hala igaro ondoren. Ildo horretan, Covid Ziurtagiria beste eremu batzuetan ere ezartzeko aukera aztertuko dugu, Europako beste herrialde batzuetan eta autonomia-erkidegoetan aplikatzen ari direnekin bat etorritik.

Zehazki, balioesten ari gara Covid ziurtagiriaren derrigortasuna espazio itxietan egiten diren ekitaldietara zabaltzea, batez ere publikoa zutik dagoenean. Baita ostalaritzako eta jatetxeetako beste esparru batzuetara ere. Era berean, gimnasioetan eta jarduera fisikoa egiten den barruko beste espazio batzuetara ere. Baita aztertzen ari gara ospitaleetan eta zentro soziosanitarioetan egiten diren bisitetan eskatzea ere.

Seguimos en pandemia y volvemos a encontrarnos en situación de emergencia sanitaria. Es importante ajustar nuestros hábitos a esta realidad: el virus y el riesgo siguen entre nosotras y nosotros, debemos evitar situaciones que representen un peligro de contagio.

Debemos reforzar la vacunación en todos los ámbitos; Analizar la extensión del uso del Certificado Covid a las actividades en que sea útil y posible; Intensificar el llamamiento a la responsabilidad y la prevención; Mantener los recursos humanos y materiales necesarios; y, también, Tener previstas nuevas medidas preventivas ante un escenario de evolución epidemiológica negativa.

Debemos adecuar nuestros hábitos a esta realidad y seguir protegiendo con rigor nuestra salud individual, nuestra salud colectiva y la salud de quienes nos rodean.

Zuen baimenarekin, gizarte osoari zuzendutako mezu batekin amaituko dut. Indarrean dauden neurriak eta neurri berriak bete behar ditugu. Beharrezkoa da norberaren babeserako neurri guztiak betetzen jarraitzea. Hau ez da amaitu, birusak ere gure artean jarraitzen du eta oso hilkorra da.

Osasun larrialdian gaude eta ahaleginari eutsi behar diogu guztiok. Txertoa oso lagungarria da, baina txertoa jarrita ere kutsatu egin gaitezke. Jarrai dezagun prebentzio-neurriak betetzen eta norbera babesten.

Denon zuhurtzia, konpromisoa eta ahalegina ezinbestekoak dira.  
Eskerrik asko!